30 URTE AÑOS

www.mugarikgabe.org

# 2017ko TXOSTENA

MUGARIK GABE
Organización No Gubernamental de Cooperación para un Desarrollo Humano, Equitativo y Sostenible
www.mugarikgabe.org

MUGARIK GABE
www.mugarikgabe.org

Garapenerako Lankidetza GKE den Mugarik Gabetik (mundu mailako) globala eta interdependientea den garapenean sinisten dugu. Giza garapen osoa lortu nahian, hau da, emakume, gizon eta herrialde desberdinen artekoa zein datozen belaunaldientzat iraunkorra izango dena, urko dugun ingurutik garatzen dugu lana, gero gure mugatik zabaltzen dugularik.

**ARABA**
“Itziar” Elkarteen Etxea - Zalburu Plaza z/g
01003 Vitoria-Gasteiz
945 277 385 – araba@mugarikgabe.org

**BIZKAIA**
Vicente Garamendi Taldea5, Lokala
48006 Bilbo
94 415 43 07 – bilbao@mugarikgabe.org

**GIPUZKOA**
Katalina Elizegi 46, behea 3.atea
20009 Donostia
943 445 977 – gipuzkoa@mugarikgabe.org

**www.mugarikgabe.org**
Mugarik Gabe
@mugarikgabe

creative commons

**Aitortu-EzKomertziala-LanEratorririkGabe 4.0 Internazionala (CC BY-NC-ND 4.0)** Dokumentu hau Creative Commons lizentziapean dago. Edukia libreki zabaltzea, kopiatzea eta birbanatzea baimentzen da edozein bitarteko edo formatutan, beti ere, egiletasuna aitortzen bada. Ezin da erabili xede komertzialarekin, nahastu edo eraldatu egiten bada edo materiala oinarri hartuta sortu egiten bada, ezin da eraldatutako materialik hedatu, ezin da lizentziak baimentzen duena legalki burutzea mugatzen duen neurri teknologikorik edo legezko akaberarik erabili.

**Lizentzia osatua:** http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/4.0/deed.es_

30 URTE AÑOS

www.mugarikgabe.org

# 2017ko TXOSTENA

MUGARIK GABE
Organización No Gubernamental de Cooperación para un Desarrollo Humano, Equitativo y Sostenible
www.mugarikgabe.org

# MUGARIK GABE-REN 30 URTETAKO ISTORIOAK

Ospakizun guztien helburua da oroitzapenen alderdi positiboa nabarmentzea. Batez ere bizitzaz ari garenean, eta oraingo honetan arrazoi asko ditugu idatzi gabeko arau hori jarraitzeko; izan ere, bizitza askori buruz ari gara, 30 urte hauetako hamaika istoriori buruz, elkarte honen historiaren, orainaren eta etorkizunaren parte direnak. Jakina, Mugarik Gabek 30 urte betetzen dituen honetan, izan ditugu une gogorrak, negatiboak, mingarriak. Ezin dugu hori ukatu. Izan ere, 30 urteotan pertsona, herri, kolektibo eta elkarte askorekin egin dugu lan, sistema madarikatu honek zanpatutakoak, eta oraindik ere zanpatzen dituenak, nahiz eta ahoa hitz politez bete demokrazia, justizia soziala eta giza eskubideei buruzko diskurtsoekin.

Baina, esan bezala, alderdi positiboari erreparatuko diogu. Ziurrenik, honakoa da laburpenik onena: AMAIGABEA. Izan ere, zenbatezinak dira 30 urte osatzen dituzten 10.950 egun horietan bizitako momentu onak.

Bi maila, bizitzako gauza guztietan bezala. Maila militantea eta maila pertsonala.

1. Militantea, boluntarioa, solidarioa, batzuek profesionala ere deitzen dutena, baina Mugarik Gaben, oraindik ere, horrela ulertzen ez duguna. Uste dugu, besterik gabe, maila hori besteekiko beharrezko konpromiso-maila dela, guztiontzako mundu bidezkoagoa eraikitzeko. Eta ibilbide horretan lehenbizi nabarmentzekoa da, hain zuzen, gutako guztioi bidea partekatzeak ekarri diguna, hango eta hemengo pertsonekin batera, gure lurraldeko eta gure Amerikako milaka emakume eta gizonekin batera. Gaur egun, zenbatezinak dira ezagutu, partekatu eta haien alde borrokatutako dozenaka prozesuak. Lurra, lantzen duenarentzat, eta elikadura-burujabetza, nekazariek nekazari izaten jarraitu dezaten; emakumeen ahalduntzea, gizon-emakumeak benetan aske izan gaitezen, gizatasunez anitzak eta sozialki parekideak; oraina eta etorkizuna erabakitzeko eskubidea, herriek, beren lurralde askeetatik mundu hobea eraikitzeko ekarpena egin dezaten, gutxi batzuen esku dagoen mundua izan beharrean guztion lurra izango den mundua, alegia.

Latinoamerika osoan ibili gara, eta milaka bizitza-istoriotatik ikasi dugu. Ekuadorretik Mexikora, Guatemalatik Kolonbiara, Nikaraguatik Boliviara edo Kubatik El Salvadorrera; Panama, Txile, Paraguay eta Argentina ahaztu gabe. Hainbat borroka mota eta eredutik ikasi dugu: auzo mailako borrokak, borroka feministak, antipatriarkalak, deskolonizatzaileak, indigenak, nekazarienak, kooperatiboak eta elkarlanaren bidezkoak. Gaur egun, alternatiba batzuk pixka bat hobeto ezagutzen ditugu: feminismo komunitarioa, XXI. mendeko sozialismoa, bizimodu ona edo ekonomia komunitarioa, elikadura-burujabetza eta komunikazio indigena eta herrikoia.

Baina, horrez gain, gure burua antolatzen ikasi dugu, hausnartzen, analisietan erratzen eta erabaki okerrak hartu ostean urratsak berriz ere bideratzen. Ikasi dugu erakunde izaten, eta garrantzitsua da hori. Gaur, 30 urteren ostean, umiltasunetik bada ere, nolabaiteko harrotasunez ospatzen dugu. Inork ez zigun esan gauzak nola egin behar genituen, inoiz ez dugu zuzendaririk izan, inork ez zigun azaldu nola aurre egin akabatu ahal gintuen krisi bati; baina egin genuen, eta elkarrekin ibiltzen jakin genuen, lur honetan eta itsasoaz bestaldekoan gure ekarpena egiten jarraitzeko.

2. Maila pertsonala. Gorago aipatutakoak zuzenean kokatzen gaitu 30 urte hauetako positibotasuneko bigarren maila honetan. Militantzia ere ikasi dugu, baina hori ez da posible maila pertsonalean ikasten ez baldin badugu. Aberastea, posible bada, handiagoa da maila honetan.

Askotan esan izan dugu, barrez ia-ia, Mugarik Gabe jende askorentzako eskola izan dela; gaur egun bestelako espazioetan egonagatik ere, behinola hemen egon zen jendearentzako eskola. Beno, izan gaitezen zintzoak: gehienok hemen jarraitzen dugu, modu ezberdinean bada ere. Izan ere, onartu dezagun: oso zaila da sortutako lotura haustea, eta Mugarik Gaben egon den jende guztia sentitzen da, oraindik ere, Mugarik Gaberen parte. Pentsa liteke sekta bat garela, baina ez dago ezer ezberdinagorik hemen bildu garen, kristau, agnostiko eta ateoen aldean; besterik gabe, gustura egon gara eta harremanak saretu ditugu.



Egia diogula argi gera dadin, edo gustatuko litzaigukeena —eta ez errealitatea— gehiegi goratzen ez dugula frogatzeko, hor daukagu 2018ko urtarrilaren 27ko ospakizuna. Jai-giro horretan, berriz ere ikusi genuen "Mugarik Gabekoak gara" sentitzen genuela gutako askok eta askok. Berriz ere elkartu ginen bakoitzaren bizi-istorioa bizkarrean; erretiroa hartu dutenak eta oraindik lanean gabiltzanak, familia bat eratu dutenak eta oraindik gurasoen etxetik irteterik izan ez dutenak, egun horietan bertan Mugarik Gaberen adina ozta-ozta betetzen zutenak eta adin hori bikoizten dutenak. Guztiok gozatu genuen urtemuga, eta, nolabait, gure konpromisoak berritu genituen; nork bere espaziotik, bere aletxoarekin, mundua eraldatzeko ekarpena egiten jarraitzeko konpromisoa.

Izan ere, jaio eta 30 urtera, oraindik ere uste dugu posible dela, eta eraiki behar dela, bidezkoagoa den mundua.

Ageriko arrazoiak direla eta, gure Latinoamerikako elkarteak eta jendea ezin izan ziren bertaratu, baina haietako askok hainbat modutan helarazi zizkiguten zorion mezuak eta desiorik onenak. Haiei guztiei, ESKERRIK ASKO hor egoteagatik.

Orain gure desiorik handiena idatzita uztea dagokigu: beste 30 urte ez betetzea. Ez sistemak gurekin ahal izan duelako, baizik eta kontrakoagatik, hain zuzen ere.

Mila esker denoi!!!












Asociación de Mujeres
AXAYACATL








EUTSI EDO
RESISTIR O MORIR




on las Mujeres
LAS DIGNAS

# HERRI INDIGENEN ARLOA



## HEZKUNTZA

Memoria-dokumentuetan laburbiltzeko ahalegina egin ohi da gehiegi luzatu ez dadin, baina aldi berean landutakoaren funtsa ulertu dadin. Oraingoan, 2017. urtean Herri Indigenen Arloak egindakoa kontatu behar dugu, eta frogatu dugu memoria orok ere baduela sorpresa kutsua; izan ere, ikusi dugu gauza asko egin ditugula, uste genituenak baino gehiago egin ere. Gehien nabarmentzekoa dena laburtzen saiatuko gara.

Arlo honetako plan estrategikoaren bi lan-ildoetan tinko jarraitzen dugu. Lehenbiziko lan-ildoa herri hauen eskubide-urraketak salatzen jarraitzeari dagokio. Horretarako, hiru alderditan zentratzen gara: protestaren kriminalizazioa estatuen aldetik; emakumeen eskubideen urraketen erreferentzia espezifikoa; eta, hirugarrenik, herri indigenetan transnazionalek egindakoak salatzea.

Bigarren lan-ildoaren bidez nabarmendu nahi dugu ez garela salaketara mugatu behar, eta, aitzitik, egoera horiek eraldatzeko proposamenak eta alternatibak daudela. Horrela, bizimodu onaz mintzatzen garenean proiektu politiko, sozial eta ekonomikotzat hartzen dugu, herri indigenentzat soilik ez dena; komunikazio alternatiboa, ez sexista eta herrikoia lantzen dugu, antolakuntza- eta politika-prozesuen zerbitzurako tresna gisa. Berriz ere diogu alternatibak badaudela herrietatik eta herrien eskubideak gauzatzetik abiatuta; bereziki lurraldea, kontsulta eta autodeterminazioarekin lotuta dauden eskubide horietatik.

Horrela, bi lan-ildo horiek argi izanda, 2017an, nagusiki, aurreko urteetan abiatutako kanpainekin jarraitu dugu.

**“Komunikatuz eraldatu” kanpaina.**

Unibertsitateetan (Mondragon eta UPV/EHU), hainbat eskualdetako komunikazio-proiektuekin, zein hedabide masiboekin lan egin dugu. Kontzientzia kritikoa eratzea zen asmoa, Euskal Herrian eta Latinoamerikan jasotzen dugun informazioari eta komunikazio-ereduei buruz. Prozesu zabalagoen parte diren bestelako



komunikazio-ereduak ezagutzera ematea eta haiei buruz hausnartzea; hala nola eredu indigena, ez-sexista eta herrikoiak, ahalbidetu genuen.

**"Eskubideek ez dute mugarik" kanpaina.**

Kanpainaren izenak berak ondo adierazten du salaketa asmoa; izan ere, gogorarazi egiten digu oraindik ere hain oinarrizkoa den zerbait errepikatu behar dela, alegia, eskubideek ez luketela mugarik izan behar. Eta hala eta guztiz ere, egunez egun gehiago murrizten dira eskubideak, gizarteko sektore baztertuez, emigrazioaz, herriez edo demokraziaz bere osotasunean ari garenean, kontuan hartuta azken urteotan gertatutako eskubide-murrizketak. Hala ere, bereziki lazgarriak diren errealitateei erreparatu nahi izan genien; Kolonbia eta Palestinako kasuei, hain zuzen. Izan ere, inpunitatearen kontrako borrokak garrantzi berezia izan behar du gerra garaian edo gatazka osteko aroan.

**Elkarrizketa-tartea: "Bakea eraikitzen duten emakumeak".**

Ekintza hau beharrezko erronka izan zen, nolabait. Emakume euskaldunak deitu eta elkartu genituen; gure herrian bidezko bakea eraikitzeko konpromiso maila altua duten emakumeak, hainbat ikuspegi ideologiko dituztenak. Horrela, Kolonbiatik jasotako esperientziekin elkartu genituen, Kolonbian bide horretan inplikatuta dauden emakumeen elkarteen bidez. Ekarpena egin nahi genuen hausnarketarako eta ikaspenerako espazio bat sortuz, gerora, ikasitakoak gure herrialdeko eta Kolonbiako hainbat arlo politiko eta sozialetara eraman ahal izateko.



**"Transnacionales y criminalización" txostena.**

Jatorrizko titulua laburtu dugu. Txosten honek 2017. urte gehiena hartu zigun. Ikertu, irakurri eta idatzi, Guatemalako — bereziki, lurralde indigenetako — tokiko transnazionalen eta oligarkiaren jarduna ezagutu ahal izateko txostena gauzatzeko. Eta baita ere, eta hor dago gakoa, txostenaren bidez salatu egiten da estatuek giza-eskubideen urraketei agertzen dieten babesa, protesta soziala kriminalizatzeko prozesuak aktibatuta. Urtearen azken fasean, Espainiako Estatuko hainbat lurraldetan difusio kanpaina zabala egin ahal izan genuen, txostena erakundeetan, elkarte sozialetan eta espazio publikoetan ezagutzera emateko.



Hori izan da, beste jardun asko alde batera utzita, 2017. urtean Herri Indigenen Arloan landutako nabarmenena. Gustatuko litzaiguke 2018 honetan lan egiteko arrazoirik ez edukitzea, baina ondotxo dakigu ez dela horrela eta asko dagoela egiteko. Lanean jarraituko dugu.

## LANKIDETZA

**CEFREC (Bolivia)**

2017. urtea oso egoera positiboarekin bukatu genuen Boliviako komunikazio indigena sakontzeari eta garatzeari dagokionez, *Sistema Plurinacional de Comunicación Indígena Originario Campesino Intercultural* delakoaren aldetik .



Sistema horretan CEFRECekin (*Centro de Formación y Realización Cinematográfica*) batera parte hartzen duten bost elkarte nazionalek aurten berritu dituzte beren zuzendaritzak eta indartu egin dute haien arteko harremana, koordinazioa, lana eta komunikazio-prozesuarekiko konpromisoa. Halaber, CAIBen (*Coordinadora Audiovisual Indígena Originaria de Bolivia*) zuzendaritza aldaketa egon da, eta egun, emakume indigena batek hartu du tokia. Horrela, estatuko instantzia ezberdinetan eta agintariengan eragiteko eta artikulatzeko gaitasuna areagotu dute.
Azken urte hauetan hainbat ekimen garatu dira, Boliviako 5 departamendutan elkarte indigenak eta beren komunikatzaileak teknikoki eta politikoki indartzeko. Prozesu horren fruitu gisa, ekarpen




aktiboa egin zaio estatu plurinazionalaren behetik gorako eraikuntzari, Boliviako herri indigenen ikuspegi eta proposamenetatik abiatuta. Gai estrategikoei buruzko hausnarketa eta proposamenak sortzeko lana, nagusiki, ekonomia komunitario eta elikadura-burujabetza ardatzean aztertu da, eta bereziki landu dira emakumeen protagonismoa eta eskubideak, eta indarkeriarik gabeko bizitzen aldeko borroka. Bestalde, komunikazio arloan egondako aurrerakadari esker, aurten mugarri garrantzitsua erdietsi da: martxan jarri



da Plurinacional TV, Boliviako lehenengo telebista kate indigena, nazio- eta nazioarte-mailako irismena duena internet bidez.

Uste dugu orain arte egindakoari esker indartu egin dela artikulazio indigena eta haien eskubideen aldeko borroka, ikuspegi deskolonizatzaile eta despatriarkalizatzaile batetik.

### Consejo Regional Indígena del Cauca - CRIC (Kolonbia)

Aurten Mugarik Gabek babesa eman die bi programari: *Programa Mujer* eta *Programa Defensa de la Vida y Derechos Humanos*. Lehenengo programari esker martxan jarri dira emakume indigenen eskubideen lehenengo tokiko eskolak, Caucako hiru zonaldetan: Occidente, Centro eta Tierradentro. Komunitate jakin batzuetan garatu dira eskolak (Vitoncó, Agua Negra, Paletará, La Gaitana) baina inguruko beste komunitate batzuek parte hartu dute baita ere. Guztira 151 pertsonak hartu dute parte; 120 emakumek



eta 31 gizonek. Bost modulu eskaini dira, honako gaiak lantzeko: Giza eskubideak, herri indigenen eskubideak eta emakumeen eskubideak; emakumeen aurkako indarkeria testuinguru indigenetan; emakumeen parte hartze politikoa eta antolakuntzakoa; familia indigena eta emakumea; emakumea eta politika publikoak. Formazioari esker ekintza plan komunitarioak formulatu eta sozializatu dira, oraindik ere agintarien aldetik babes-maila txikia duten planak, alegia.

Erakunde arteko koordinazioaren bidez, Defensa de la Vida y Derechos Humanos programak, kasu indibidual zein kolektiboen, giza eskubideen (aurrerantzean GE) eta nazioarteko zuzenbide humanitarioaren (aurrerantzean NZH) urraketen jarraipena egin du. 2017an bi buletin argitaratu dira, eta bertan, agerian geratzen da, nahiz eta bake prozesua abian egon, GE eta NZHaren urraketak hazi egin direla. Prebentziora,




ikerketara eta babesera zuzenduriko Giza Eskubideen garantien mahai erregionaletan parte hartu dute. Halaber, Justicia Especial para la Paz (JEP) eta Justicia Indígenaren arteko koordinaziorako protokolo bat sortu dute. Taldeko abokatua JEPeko magistratua izateko aukeratua izan da. Lurraldearen kontrolerako Guardia Indígena indartu egin da. Aldi berean, Mingaren ondorioz, babes kolektiborako Guardia Indígenari aitortza politikoa eman zaio.

### Organización Indígena de Antioquia - OIA (Kolonbia)

2017.urtean *Encuentro Internacional de Escuelas Indígenas* topaketen VI. edizioa antolatu zuen OIAk. Bertan, elkarte parte hartzaileek Antiokiako herri indigenak Bake Akordioak abiarazteko testuinguruan honetan babestu zituzten.,. Hausnarketaren muina deskolonizazio eta despatriarkalizazio lanetan zentratu zen, zeinak formazio politikoko elkarte eta eskoletatik bultzatzen diren. Halaber, metodologiak eta formazioa zuzendurik dagoen subjektu politikoak ere izan zituen hizpide nagusi hausnarketak.

Nazioarteko topaketa bukatuta, Mugarik Gabetik *Casa del Saber Mario Domicó* eskualdeko lehen topaketan elkarlanean aritu ginen. Landutako gaien ildoagenero ikuspegiarekin bakea, adiskidetzea eta justizia trantsizionala izan ziren.Topaketak *Minga* nazionalean parte hartzeko eten egin ziren; bertan, gobernu nazionalarekin eta eskualdekoarekin Adostutako Akordioen betekizuna eskatu ziren.

Horrez gain, *Giza Eskubideen* (GE) programaren bidez, berriz ere aktibatu dira bake kontseiluak eskualde eta zonaldeetan, artikulatzeko, trebatzeko eta herri indigenen bake proposamenak eraikitzeko espazio gisa. Halaber, GE eta Herri Indigenen Batzorde Nazionalaren baitan, Cauca eta Urabán GEen egoera egiaztatzeko misio bat sustatu du. Bertan, eskumenak dituzten elkarte indigenak eta gobernuko erakundeak parte hartu dute. elkarteRichar Sierra kontseilariak Giza Eskubideen defendatzaileentzako Aldi Baterako Babeserako programan parte hartzeak on egin dio salaketa- eta ikusarazte-estrategiari. Aipatutako estrategiari amaiera eman zitzaion leheneratze, giza eskubideen egoera eta bake prozesuari buruzko egiaztapen misioarekin, zeina osatzen duten Eusko Legebiltzarrak, Eusko Jaurlaritzak, CEAR - Euskadik eta Mugarik Gabek. Egiaren Batzorderako hautatutako pertsonen artean OIAren antolakuntza prozesuan dabilen emberá indigena bat dago.

### ASECSA (Guatemala)

Alta Verapaz lurraldeak gatazka egoera larria bizi du: komunitateei lurrak eta ur-iturriak desjabetzea, ingurumenari eraso egitea eta eskualdeko herri maien elikadura-burujabetza kaltetzea... ASECSA Nor Oriente (*Asociación de Servicios Comunitarios de Salud*) elkarteak honako ildoetan zentratu du bere lana: Politika eta antolakuntzari buruzko formazio prozesuak, lehentasuna emanda Alta Verapazeko emakume eta gazteei. Laguntza legala eskaintzea lurraldea eta elikadura-burujabetza defendatzeagatik jazarpen politikoa pairatu duten giza eskubideen defendatzaileei. Emakumeen ahalduntze politikoa, ekonomikoa eta antolakuntzari buruzkoa, genero parekidetasunaren aldeko ekintzak aplikatzeko







indarkeriarik gabeko bizitzak lortzeko bidean. Elkarte komunitarioekin eta gizarte-mugimenduekin aliantzak eta artikulazioa gauzatzea, departamendu-zein nazio-mailan, eragiteko ahalmena lortzeko lurraldearen, elikadura-burujabetzaren eta indarkeria matxistarik gabe bizitzeko eskubidearen defentsarako giza eskubide indibidual eta kolektiboen markoan. Elkarte komunitarioak indartzea eta formazio eskolak (politikoak eta elikadura-burujabetzari zein generoari buruzkoak) sustatzea, formazio eta informaziorako espazio batekin.

ASECSA Nacional-en mailan ere aurrera doa lurraldearen aldeko eta transnazionalen kontrako borroka; batez ere, enpresa hidroelektriko eta meatzaritza-enpresen kontra, eta herritarren osasunean duten eraginaren kontra.

Ildo horretan lau estrategia lehenetsi dira: Tokiko elkarteak indartzea, formazio politikoaren bidez eta analisi kritikoa egiteko gaitasuna garatzearen bidez; Osasun sustatzaileak eta emagin tradizionalak indartzea, lanbide heziketaren bidez, medikuntza indigena sustatuz eta antolakuntzan lagunduz; Eragin politikoa. Horretarako, eratuta dagoen behatoki komunitarioa indartzea, laguntza juridiko nazionala, CICIGarekin (*Comisión Internacional contra la Impunidad en Guatemala*) elkarrizketak, kasuen jarraipena Giza EskubideenAmerika arteko Batzordean eta etengabeko salaketa gauzatzea foro herritarrean; Sentsibilizazioa eta komunikazioa. Horretarako, hausnarketa espazio komunitarioen bidezko estrategia erabiliko da, meatzaritzak eragindako kalte ekologikoei, osasunari dagozkionei eta sozial-komunitarioei buruz hausnartzeko.

Barne-mailan, ASECSAtik apustua egin da antolakuntza-egituraren baitako genero desparekotasunaren arrakala murrizteko, eta erakunde bat sortu da genero parekidetasuna lortzeko ekintzak sustatzeko; erakunde horrek rol aktiboa hartuko du genero-indarkeria detektatzeko, salatzeko eta prozesu horretan laguntzeko, Genero eta Maskulinitate Berrien eskola martxan jarrita.

## UKUXBE (Guatemala)

Herri indigenen borrokan erreferentziazko elkartea den neurrian, lan ildo gisa izan ditu herri indigenen eskubide indibidual eta kolektiboak exijitzea, defendatzea eta gauzatzea. Kontuan hartuta une honetako egoera, bereziki multinazionalen, hidroelektrikoen eta meatzaritzako transnazionalen erasoen aurrean, eta baita Mayab identitatearen berreskurapenean.

Mayab' herri osoaren eskubide indibidual eta kolektiboen defentsan ekarpena egiteko helburuarekin, elkarteak lagundu egin du jarduera-ardatz nagusi hauen bidez:

Formazio eta aholkularitza: etapa honetan jarraipena eman zaio "Mayab Izaeraren eraberritzea" diplomari eta analisi zirkuluei (gerora ikertzeko). Hasiera batean lehenetsi da formazioren bidez emakume gehiago batzea komunitate-eraikuntzako eta formazioko espazioetara.

Eragina: Proposamen batean parte hartu da, eskualde-eta nazioarte-mailako espazio sozialetan emakumeek dituzten eskaeren inguruko proposamenean hain zuzen ere; lehentasuna eman zaio emakumeen presentziari *VI. Cumbre de Pueblos Indígenas* goi-bileran, emakume indigenek pairatzen duten kriminalizazioa eta errepresioari buruzko proposamen adostuen bidez. Ildo berean, CEDAWri presioa egiten jarraitzen zaio *Red de Organizaciones de Mujeres e*



*Indígenas* sarearen bidez. Horrela, CEDAWri emakume indigenentzeako gomendio orokorrak onartu ditzan eskatzen zaio, erauzketa-enpresen operazioek haien lurraldeetan desparekotasunak eta gatazka soziala areagotzen baitute.

Antolakuntza artikulatzea: *Waqib´ Kej* plataforman egindako lanarekin jarraitu da. Horrela, Iximulew-ko herri indigenen eskaera eta proposamen politikoak eratu dira Bizimodu Ona birsortzeko eta estatu plurinazionala eratzeko. Hori guztia, Guatemalako *Asamblea Social y Popular* asanbladako kide gisa koordinatuta gauzatu da, komunitate, herri, kolektibo eta emakume- zein gazte-elkarteen arteko batasuna indartzeko. Horrela herriari boterea emango dion prozesu konstituziogilea sustatzea da asmoa, guztientzako justizia eskuratzeko eta jatorrizko herrien eskubide, identitate eta kosmobisioekiko errespetu osoa lortzeko.

Bestalde, kriminalizatutako, espetxeratutako edo prozesatutako pertsonen aldeko babesarekin jarraitu da; izan ere, halako kasuak antolatzen diren pertsonak ikaratzeko eta mendekotasuna sorrarazteko erabiltzen dira.



# GENERO ARLOA




## HEZKUNTZA

2010. urtetik indarkeria matxisten aurkako estrategia garatzen ari gara, sustatzen ditugun hezkuntza-prozesu eraldatzaileen bidez. Lan hori bi ikerketetan gorpuztu da azken aldian; asmoa da ikerketa horien bidez hainbat gai sakonago aztertu eta gure lanarekin jarraitzea.

### Ikerketa “Feminizidioa Euskadin eta Nafarroan 2010 – 2015”

Feminizidioaren paradigma prozesu honetan zehar agertu zen ikuspegi jakin baten moduan; nahiz eta Latinoamerikan zabal garatu den kontzeptua izan, baita bertako gure bazkideen aldetik ere, gutxi sakondu genuen gure testuinguruan. Ikerketa honen bidez ekarpena egin nahi dugu indarkeria matxistak eta feminizidioa ezabatzea lehentasuna izan dadin agenda politikoetan; 2010 eta 2015 artean Hego Euskal Herrian egondako emakumeen erailketei buruzko informazioa zabaldu dadin, eta informazioa sozializatuta, eraildako emakumeen memoria historikoaren eraikuntzan ekarpena egin dezagun.  Azterketa honek informazio baliotsua dauka fenomeno honi, emakume biktimen profilei eta baita hiltzaileen profilei heltzeko. Kasu horiek hedabideetan nola tratatu diren aztertu da, eta kasu horietako batzuen ebazpenak sakon aztertu dira. Hori guztia, feminizidioak hedabide eta erakundeetatik lantzeko beharrezko aholku eta aldaketak proposatuta.




### Ikerketa “Asfalto arteko loreak”. Indarkeria matxisten kausak eta eraginak biziraun duten emakume biktimen bizitzetan.

Ikerketa honek “Emakumeen Eskubideen Nazioarteko Auzitegia, Viena+20, Euskalherria 2013” auzitegian erabakitako ildo berdinak jarraitu ditu. Horrela, ikerketaren helburua da emakumeen eskubideen urraketaren egiturazko arrazoiak sakonago identifikatzea; ekintza-proposamenak egin eta aurre egiteko neurriak sortzea; eta emaitzetatik abiatuta, politikan eta erakundeetan eragiteko ahalmena lantzea, eta gizartearen esparru ezberdinetan gizarte-pedagogia jorratzea.

Ikerketa kualitatiboa da, eta prozesu osoa feminismoak, giza eskubideen markoak eta intersekzionalitateak gidatu dute nagusiki. Azterketa honetan emakumeen lekukotzak, egitateak eta bizipenak dira nagusi;

lekukotzak lehenengo pertsonan kontatu dituzte, eta mundu mailako eskubide-urraketen errealitatea islatzen dute.




Argitalpen honen asmoa asfaltoan arrakala bat irekitzea da. Horren bidez, emakumeen lekukotzek eta analisi feministek indarkeria matxistak salatzen dituzte haien konplexutasun osoan, eta memoria kolektiboko ariketa bilakatzen dira, non emakume biktimek eta biziraun duten guztiek lekua duten.

Urrats bat gehiago izan da Mugarik Gaberen lanean, proposamenak hausnartzeko eta sortzeko gure apustuan, eta indarkeria matxisten aurrean estrategiak eta alternatibak eraikitzeko beste elkarte eta mugimenduekin elkarlanean. Ikerketa hau Hegoa-rekin batera egin dugu, eta 18 elkartek hartu dute parte.

**LegEkintza jardunaldiak: indarkeria matxistarik gabe bizitzeko proposamen feminista legegileak"**

Azaroaren 2an, 3an eta 4an LegEkintza jardunaldiak ospatu genituen. Jardunaldiek hainbat helburu zituzten: indarkeria matxistak maila lokalean zein globalean salatzea, ulertuta indarkeria matxistarik gabe bizitzeko emakumeen eskubideen urraketa zela; elkarte feminista eta sozialen arteko proposamenak aztertzeko, hausnartzeko eta eratzeko espazio bat sortzea, legegintzak behar dituen hobekuntzei buruz; Latinoamerikako, estatuko zein Euskal Herriko emakumeen mugimenduen eta mugimendu feministaren ikaspenak eta balorazioak jasotzea, eta egungo legeek eskaintzen dituzten aukerak aztertzea, baita legeak eratzeak dakartzan aukerak ere.



150 pertsona baino gehiagok hartu zuten parte, eta ateratako ikaspen eta ondorioak lantzen ari gara oraindik ere. Horien bidez, eragin politikoa gauzatzen ari gara emakumeok indarkeria matxistarik gabe bizi ahal izateko, eta subjektu gisa ditugun eskubide guztiak erabili ahal izateko.

**Legeei buruzko elkartruke-prozesuaren hasiera, El Salvadorreko La Colectiva eta Arabako Emakumeen Asanbladaren artean**

Abiapuntu izan dugu El Salvadorreko eta Gasteizko feministen arteko esperientzia- eta lan-elkartrukea. Horrela, aurrera egingo dugu legeak hobetzeko bidean, eta indarkeria matxistei eta sexu eta ugalketa eskubideei buruzko legeak aplikatzeari dagokionez. El Salvadorren, elkarteen eraginarekin eta erakunde publikoetako eskumenetatik, Zigor-kodeko erreformaren onarpenean eragin nahi dugu, bereziki abortuaren 133. artikuluan. Aldi berean, indarkeriarik gabe bizitzeko eta sexu eta ugalketa osasuna edukitzeko eskubidea gauzatzeko, 5 udalerritako emakume-elkarteen antolatzeko eta eragiteko gaitasuna indartuko da. Hein berean, udal gobernuen eta justizia-eragileen gaitasunak indartu nahi dira, genero indarkeria kasuen aurrean prebentzioa, babesa eta sentsibilizazioa egon dadin. Bai Gasteizen baita EAEn ere, gure helburua da eragile gakoekin batera emakumeen eskubideen defentsarako lege aurreratuenak ezagutzea, eta erakundeetan eragiteko estrategiak ezartzea egungo legeek aurrera egin dezaten, indarkeriaren ikuskera mugatua baitute. Arretari eta justiziari dagokionean praktika onak aztertu nahi dira baita ere, El Salvadorreko kolektiboekin gauzatutako esperientzia-elkartrukearen parte izan daitezen praktika horiek.

**El Salvadorreko Zigor Kodea erreformatu eta abortua despenalizatu dadin erakundeak alde agertzeko eskaera kanpaina.**

2017an beste erakunde batzuekin batera (Medicusmundi Bizkaia, Setem Hego Haizea, Paz con Dignidad, Paz y Solidaridad, EAEko Mugarik Gabeko Ingeniaritza, Asamblea de Cooperación por la Paz, Medicusmundi Gipuzkoa, Medicusmundi Araba) EAEko

erakunde publikoei, abortua lau balizko egoeratan despenalizatzen dituen El Salvadorreko Zigor Kodea erreformatzearen alde ager zitezen eskatu genien. Eskaera hori bat dator *Agrupación ciudadana por la despenalización del aborto* eta *Alianza a favor de la salud y la vida de las mujeres* elkarteetatik El Salvadorren antolatutako herritar gehienek eskatzen dutenarekin. Zentzu horretan, irailaren 22an agerraldia egon zen Bizkaiko Batzar Nagusietan. Bertan parte hartu zuten Morena Herrerak (*Agrupación ciudadana por la despenalización del aborto* herritar taldeko kidea) eta eskaera egin dugun GGKEek. Bizkaiko Batzar Nagusietan egindako agerraldiaren harira,



ekimenaren alde agertu eta sinatu zuten urriaren 18an Gernikan.

Halaber, Gasteizko Udalari proposamena aurkeztu zitzaion Arabako Emakumeen Asanbladarekin batera; udalak, uztailaren 21ean, erreformaren aldeko adierazpen instituzionala adostu zuen.

### Ikusezinean bidaiatzen

Aurten, halaber, prozesu honekin jarraitzen ari gara, proposamenak kolektiboki sortzea sustatzeko, gizarte-elkarteetan genero parekidetasunaren



aldeko antolaera-aldaketa bat eman dadin. Martxoan lehenbiziko elkartruke handia egin genuen. Bertan aitzindariek, bidaiariek eta tripulazioko kideek esperientziak partekatu zituzten publikoarekin, eta horrez gain beren elkarteetan laguntza-prozesuekin jarraitu zuten.

## LANKIDETZA

### Corporación para la Vida Mujeres que Crean (Kolonbia)

2017an Mugarik Gabetik *Corporación para la Vida Mujeres que Crean*-en (aurrerantzean, CMQC) emakumeen Giza Eskubideen eta herritarren programaren baitan, bi prozesu lagundu ditugu.

2011tik *Secretaría de las Mujeres y de Educación* idazkaritzarekin eta *Escuelas entornos protectores* programaren baitan, hezkuntza arloan sexu-indarkeria prebenitzeko lanean laguntzen ari gara. 2017an 16



erakunderen hezkuntza-komunitateari zuzendutako tailerrak abiatu dira, indarkerien atzean ezkutatzen diren testuinguru, arautegiak eta arreta-ibilbideak eta errepresentazio kultural eta praktikoak sakonduz, hortik abiatuta prebentzio ekintzak motibatzeko. Horrez gain, CMQCek indarkeriei buruzko lanketan garatutako ikuspegi eta metodologiak sistematizatu ditu. Horren bidez, eskolaren baitako zein eskolatik kanpoko egoeretan sexu-indarkeria artatzeko, prebenitzeko eta zigortzeko estrategiak indartu nahi dira. Bestalde, beste elkarteekin elkarlanean, martxan jarri da “*Zoom ciudadano por los derechos de las mujeres*” ekimena; horren bidez, sexu-indarkeriaren jarraipena egin eta arreta-protokoloa abian jarri dira. Prozesu hori *Secretaría de Educación y Secretaría de las Mujeres* idazkaritzetatik asko balioetsi da, eta eskaera handia dauka hezkuntza-instituzioen aldetik.



Beste prozesuak gatazka armatuaren testuinguruan indarkeriari aurre egin dieten emakume biktimak laguntzea du helburu, informazio tailerren bidez. Horrez gain, *Colectiva Justicia Mujer* elkartearekin batera hautatutako 5 kasu dokumentatzen ari dira, eta auzi estrategiko bat prestatzen ari dira, osasuna eskuratzeko eskubidea berreskuratzeko. 2017an CMQCk XV. txostena argitaratu zuen: Medellin eta Antiokiako emakumeen giza eskubideen egoera 2016. urtean. Txosten horrek indarkeriak eta arreta ibilbideak aztertzen ditu.

### Alianza Política Sector de Mujeres (Guatemala)

Indarkeria testuingurua, giza eskubideak urratzea, giza eskubideen defendatzaileak jazartzea, jatorrizko herriei baliabide naturalak lapurtzea, emakumeenganako indarkeria eta diskriminazioa... Horren guztiaren aurrean emakumeen ekintza politikoa sustatu da, emakume maia, xinka eta mestizoen indar eta eragin politikoa gero eta gehiago handituz.

Lurraldeetako elkarteen presentzia publikoa eta mobilizazio-gaitasuna mantendu eta indartu dira, politikoki alde eginez beren eskubide eta lurraldeei buruzko eskaerak, salaketak eta proposamenak (gorputza-lurra-natura eta historia/memoria).




*Alianza Política Sector de Mujeres-ek* (aurrerantzean, APSM) bere baitako elkarteak indartzeko lanetan jardun du; lurralde mailan, maila nazionalean eta baita nazioartean ere, subjektu politiko feminista eraikitzeko eta emakumeen giza eskubideak erabiltzeko eta defendatzeko.

Lehentasuna eman zaio aktiboki parte hartzeari politika publikoei jarraipena egiteko espazioetan, eta baita zenbait gairi buruzko agendaren jarraipen espazioetan ere; hain zuzen ere, erakundeei lotutako funtsezko gaien inguruan, hala nola indarkeria matxista, estatu-erreformak, nazioarteko txostenak eta ustelkeria, zigorgabetasuna eta agenda ekonomikoaren kontrako borrokari lotutako espazioak.

Emakumeen sektoretik koordinazioan jarraitu da aliantza-espazioetako emakumeen edo feministen



mugimenduekin, eta gizarte-mugimenduen espazioekin, aktiboki parte hartuz analisi kolektiboko prozesuetan, eta abiapuntutzat hartuta ikuspegi feminista, kritikoa eta emakumeengandik abiatzen diren proposamenak, eztabaidarako analisi eta dokumentuez lagunduta.

Zentzu horretan, interes berezia jarri da areagotu dadin analisi kritiko, artikulazio, antolakuntza eta mobilizazio sozialerako gaitasuna, eta horrela hobeto eragin ahal izateko gizarte-mugimenduengan, jatorrizko herriengan, nekazari-mugimenduan eta tokiko agintariekin edukitako elkarrizketetan. Horren guztiaren bidez ekarpena egin nahi da Ondo Bizitzea eraikitzeko bidean, abiapuntu hartuta emakumeak, feministak eta jatorrizko herrietako emakumeak; horrela, subjektu politiko feministari ekarpena egin nahi zaio, eta emakumeen giza eskubideen erabilpenari eta defentsari ere, eremu lokalean zein departamendu mailan eta nazio-mailan zein nazioartean.

Halaber, Mugarik Gabek sustatutako “TipiTapa Bagoaz Bizimodu jasangarrietarantz” prozesuan parte hartu du APSMk, beste hainbat gizarte elkarterekin batera. Prozesu horretan sortu ziren eta sozializatu ziren adostutako proposamen eta aldarrikapenak, lau ardatz estrategikoetan oinarrituta: Elikadura burujabetza, ekonomiaren birkokapena, eredu energetikoa eta zaintza, eta bizitza jasangarriak izateko eskubidearen aldeko auzitegi sinboliko batekin bukatu zen.

### Axayacatl (Nikaragua)

*Axayacatl* emakume elkartearekin elkarlanean jarraitzen dugu oraindik ere, Masaya departamenduko hainbat komunitateko emakumek garatutako ahalduntze ekonomiko eta ideologikoko prozesuak laguntzen. 2017an komunitateetako emakumeen ahalduntze ideologikoa landu ahal izan da (justizia



eskuratzeko bidean indarkeria pairatu duten emakumeak lagunduz, emakumeen eskubideen aldeko mobilizazio aldarrikatzaileak eginez), indarkeriari aurre egin dieten emakumeen autolaguntzarako taldeekin jarraitu da eta baita emakume defendatzaileak trebatzen eta laguntzen ere. Halaber, emakumeen giza eskubideen aldeko sentsibilizazioa ere egin da, bereziki nabarmenduz Masayako herritarrek indarkeriarik gabe bizitzeko duten eskubidea eta baita sexu eta ugalketa eskubidea ere.

Ahalduntze ekonomikoko ekimenei dagokienez, komunitateetako emakumeekin elkarlana gauzatu da sektore produktiboa Ceiba komunitatean zabaltzeko; kasu honetan, hegaztien hazkuntzaren bidez. Bestalde, Catarina eta San Juan de Oriente zonaldeetan landare apaingarri eta sendagarrien haztegiak eta artisautza produktuak sustatzen ari dira. Izan ere, bi udalerri horiek herrialdeko landare eta artisautza ekoizpen handienetakoa daukate. Aldi berean, merkaturatze-prozesuetan trebakuntza eskaintzen ari zaie ere.




### Las Dignas (El Salvador)

El Salvadorreko elkarte feminista da; Mugarik Gabetik 25 urte daramatzagu beraiekin elkarlanean. *Las Dignas*ek honako gaiak lantzen ditu: eragin, presio eta mobilizazio politikoa; ikerketa eta formazioa emakumeen kontzientzia kritikoa indartzeko; iritzi publikoa eratzera bideratutako komunikazioa eta dibulgazioa; emakumeen erabakiak indartzera bideratutako aholkularitza, zapalkuntza egoerak gainditzeko eta arreta egokia eskuratzeko; eta elkarteak indartzea, eta, batez ere, emakume taldeak laguntzea haiekin adostasunak lortzeko, oinarri hartuta eskaerak, interesak eta proposamenak.

Ekimen horiek guztiek sexu eta ugalketa eskubideen inguruko lana egiten dute, abiapuntu hartuta emakumeen gorputzaren autonomia, indarkeria matxistaren aurkako borroka, lanaren sexu-banaketa eta sozializazio-prozesu sexistak, gizon-emakumeen arteko parekotasun ezak oinarri gisa. 2017an bereziki landu dira sexu-indarkeriak eragindako nerabeen haurdunaldien prebentzioa, sexu eta ugalketa eskubideen sustapena eta honako gaitasunak indartzea: antolakuntza, parte hartze politikoa, eragin eta ikuskaritza soziala, eta emakume gazte






